

**derechoamorrir.org**

Duintasunez Hiltzeko Eskubidea elkarte

Egina

duzu

zure



**Aurretiazko  
Borondateen  
Dokumentua?**  
(ABD)

ABDari buruzko informazioa

(Bizi-testamentua)

Euskadi

**dmdhe**  
DERECHO A MORIR DIGNAMENTE  
DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA  
E U S K A D I

# Elkarrizketa benetan garrantzitsua

Heriotzaren gaia tabua da. Batzuetan deserosoa izan daiteke heriotzari buruz hitz egitea, baina pertsona guztiok pasako gara esperientzia horretatik. Heriotza biziaren baitan dago.

Inork ez daki noiz eta nola hilko den, baina eskubidea dugu, zuk ere bai, nola hil nahi dugun erabakitzeke, eta nola ez. Hitz egin ezazu horretaz senideekin, eta animatu beraiek ere ABD egitera!.

## Zer da ABD delakoa?

Agiri horretan adierazten duzu zein zaintza eta tratamendu jaso nahi dituzun, eta zeintzuk ez, baldin eta, zure osasunaren narriadura konponezina tarteko, adierazpen-ahalmena galduko bazenu.

Aurretiazko Borondateen Dokumentua (ABD) testu hauei jarraiki arautzen da: Pazientearen autonomiari buruzko 41/2002 Legea, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortu eta arautzeko 270/2003 eta 66/2018 dekretuak, eta Bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko 11/2016 Legea.

Eutanasia Arautzeko 3/2021 Lege Organikoak legez jasotako egoeretan hiltzeko laguntza eskatzeko balio duen dokumentu gisa aitortzen du ABDa.

## Zergatik da garrantzitsua?

- ✓ Norberak erabakitzen du, nor bere balioen arabera; bizitzaren amaieran sufrimendua luza diezazuten saihestu ahalko duzu.
- ✓ Zure borondatea bete dadila bermatuko duzu, baldin eta ezin baduzu adierazi.
- ✓ Zama kentzen diezu senide eta pertsona kuttunej, erabaki zailak hartzeko atakan.
- ✓ Erraztu egiten diezu lana osasun-langileei, argi izango baitute pazientearen borondatea, senideei galdetu beharrik gabe.

# DMD-DHEren proposamena

DMD-DHEk badu ABD egiteko eredia, bere horretan erabili dezakezuna edo zure egoerara edota baloreetara moldatuta. Osakidetzaren eredia, edo beste baten bat, erabiltzea erabakitzen baduzu adierazpen hau ere txerta dezakezu.

**Adierazten dut:** etorkizunean **neure osasuna itzulezineko moduan hondatzen bada**, halako neurrian, non ez dudan ahalmenik izango **eutanasia eskatu ahal izateko** eta jaso nahi ditudan zainketei eta tratamenduari buruzko **adostasun aske, borondatezkoa eta kontzientea** emateko, neuretzat **on handiena dela neure bizitza lehenbailehen amaitzea**, aurretiko jarraibide, aurretiazko borondate edo bizi-testamentu honen arabera:

- ✓ Eskatzen dut **neure bizitzari eutanasiaren bidez lehenbailehen amaiera ematea**.
- ✓ **Sufrimendu fisiko edo psikiko etengabe eta onartezintzat jotzen dut**, eta hortaz, **neure duintasun pertsonalarekin bateraezina, pairamen larri kroniko eta ezintasun-sortzaile batzuek**, hala nola gaixotasun neurodegeneratiboek (Alzheimer motako dementzia eta antzekoak), **neure nortasuna eta buru-ahalmenak halako moduan narriatzea** non ez naizen gauza izango, neure gaixotasunaz eta neure balio-eskemaz jabetzeko.

Horregatik, nahiz eta nik ez adierazi, edo ez gogoratu edo beste pertsona batzuen iritziz ez erakutsi kanpo aldera sufrimendu-zantzurik, **neure buruaz baliatzeko gauza ez izatera, edo neure senide edo hurbilekoak ez ezagutzera, edo dementzia moderatuaren (GDS 5 FAST Reisberg eskalan) pareko egoera klinikora iristen naizenean**, neure bizitza **eutanasiaren bidez** lehenbailehen amaitzeko borondatea errespetatzea nahi dut.

- ✓ Eutanasia-eskaeraren kudeaketak hartzen duen epean, edo eskaera ukatuz gero, **uko egiten diot** bizitza iraunarazten lagunduko luketen **bizi-euskarri**, tratamendu, edo esku-hartze nahiz **prozedura orori** (antibiotikoak, fluido bidezko nutrizio-hidratazioa, zunda nasogastrikoa edo gastrostomia, taupada-markagailua edo desfibriladorea, etab.) Orobat eskatzen dut nire **sufrimendua arindu dezatela** dauden bitarteko guztiak erabiliz, eta gaixotasun aurreratu edo terminaleko egoeran aurkituko banintz, **sedazio aringarri** sakona eskatzen dut, nire heriotzara arte mantendua.

**Zalantzarik badago** erabakitzeko egitatezko ezintasun-egoera **atzeraezina ote den**, argi utzi nahi dut aukera horrek ez duela aldarazten eguneroko jardueretarako beste pertsona batzuen mende egongo den bizitza ez jasateko nire erabaki irmoa.

- ✓ Osasun-arloko profesionalen bat jarraibide hauetakoren baten kontzientzia-objektore deklaratu balitz, haren ordezkari beste profesional bat izendatzea nahi dut, nire bizitzaz eta heriotzaz askatasunez erabaki dudana berma dadin.

# Ordezkarrien izendapena

Ordezkarrien zeregina ABDan jasotako borondatea betearaztea da. Gomendagarria da zure baloreak ezagutzen dituzten pertsona gertukoak izendatzea, zeinekin gaiari buruz mintzatu zaren.

# Nola egiten da?

Deskargatu, bete, sinatu eta erregistratu ABDA.

Eskuratzeko: <https://derechoamorir.org/testamento-vital/>



**ERREGISTROAREN LURRALDE ORDEZKARITZAN** (hitzordua eskatuta)

**ARABA:** Olagibel kalea 38, Gasteiz. 945 017 148 | 945 017 150 tel.

**BIZKAIA:** Recalde zumarkalea 39, Bilbo. 944 031 500 tel.

**GIPUZKOA:** Antso Jakitunaren hiribidea 35, Donostia. 943 023 006 tel.

**ZURE OSASUN ZENTROAN** (hitzordua eskatuta)

**HIRU LEKUKOREN AURREAN**

Adinez nagusiak. Ezingo dituzu lehen edo bigarren mailako senide izan, ezta ezkontide, izatezko bikotekide edo elkartzeko librekide ere, eta ezingo dute ondare-harremanik izan zurekin. Honela eginez gero, zu zeu arduratu beharko zara ABD Aurretiazko Borondateen Erregistrora bidaltzeaz, Osakidetzaren jarraibideei jarraiki.

**NOTARIOAREN AURREAN** (aukera hau ez da doakoa)

Zure ABD Aurretiazko Borondateen Erregistroan jasota geratuko da, eta zure historia klinikoan agertuko da. Zure medikuak kontsultatzeko moduan egongo da.

### INFORMAZIO GEHIAGO:

- DMD-DHE elkartearekin kontaktatu.
- Webgunea: <https://derechoamorir.org>
- Elko Osasun Saileko webgunea:  
Aurretiazko Borondateen Dokumentua (ABD)  
<https://labur.eus/U8wIm>

### DMD-DHE Euskadi

Araba kalea 6 (erdi-sotoa)

48014 Bilbo

635 738 131

[dmdeuskadi@derechoamorir.org](mailto:dmdeuskadi@derechoamorir.org)

### DMD Egoitza zentrala

Puerta del Sol plaza, 6, 3.a ezk.

28013 Madril

91 369 17 46

[informacion@derechoamorir.org](mailto:informacion@derechoamorir.org)

